

**Maizterra:** Petrux

**Jolasa edo sistema:** Akelarre

**Partidaren izena:** Maddalenen madarikazioa

**Jokalari kopurua:** 3-5

**Partidaren sinopsia:** 1350 urtea da. Azoka eguna da Oreretan (Villanueva de Oiarso bezala berriki izendatua izan den hiriberria). Gure protagonistak herrira etorri dira hainbat aferaz okupatzera, baina hildako gorpu baten agerpenak plan guztiak aldatuko ditu. Nork hil du herriko alguazila, eta zergatik?

**Eguna eta ordua:** Abenduak 5, 18:00

**Partidaren iraupena:** 2 ordu eta erdi

**Beharrezko baldintza teknikoak:** Jitsi, dadiños

**Partidan erabiliko diren segurtasun neurriak:** X txartela

**Umeentzako egokia al da?** Ez

**Rolean inoiz aritu ez direnentzako partida aproposa al da?** Bai.

**Partidaren edukiari buruzko oharrak (biolentzia, sexua, umore beltza eta beste):**

Partida ikerketan oinarrituko da biolentzia fisikoan baino gehiago. Dena den, Erdi Aroa biolentzia, matxista eta arrazista denez, gai hauek ere azal daitezke partidan, fikzioaren barne. Erlijioa, paganismoa eta deabruak ere ager daitezke.

**Partidan izena emateko erantzun post honi** izen-abizenak edo ezizen bat eta **kontakturako email** bat erabilita eta interesa adierazita. Lekuak iruzkinaren dataren arabera banatuko dira, partida bete arte.

**Zabaldu:**



- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)